**Agindua, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez hasiera ematen baitzaio honako agindu-proiektua egiteko prozedurari: Profesionalen Elkargoei eta Kontseiluei eta Tituludun Lanbideen Erregistroaren araudiari buruzko otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuaren eranskina aldatzeko eta Tituludun Lanbideen Erregistroa prozedura telematikoen arabera egokitzeko den agindu-proposamena.**

**I. Arlo horretan indarrean dagoen araudia eta egin asmo den erregulazioaren premia.**

Euskal Autonomia Erkidegoak profesionalen elkargoen eta tituludun lanbideen arloetan dituen eskumenek Autonomia Estatutuaren 10.22 artikuluan dute oinarri. Xedapen horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkio profesionalen elkargoei buruzko eta tituludun lanbideetako jarduerari buruzko eskumen guztiak, Konstituzioaren 36. eta 139. artikuluetan xedatutakoa kaltetu gabe.

Eskumen hori baliatuta eman zen Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legea (aurrerantzean, “18/1997 Legea”). Lege hori Profesionalen Elkargoei eta Kontseiluei eta Tituludun Lanbideen Erregistroaren araudiari buruzko otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuaren bidez garatu zen (aurrerantzean, “21/2004 Dekretua”).

18/1997 Legearen 21. artikuluak Tituludun Lanbideen Erregistroa sortu zuen, eta 21/2004 Dekretuaren I. Tituluak erregistroaren funtzioak eta antolamendua, eta publikotasuna arautzen ditu.

**Orden de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, por la que se acuerda la iniciación del procedimiento de elaboración del proyecto de Orden por la que se modifica el anexo del Decreto 21/2004, de 3 de febrero, sobre el Reglamento de Profesiones Tituladas, los Colegios Profesionales y los Consejos Profesionales y se adapta el Registro de Profesiones Tituladas conforme a procedimientos telemáticos.**

**I. Normativa vigente en la materia y necesidad de la regulación proyectada.**

Las competencias de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de colegios profesionales y ejercicio de profesiones tituladas se fundamentan en el artículo 10.22 del Estatuto de Autonomía. En su virtud, se atribuye a la Comunidad Autónoma del País Vasco la competencia exclusiva en materia de colegios profesionales y ejercicio de profesiones tituladas, sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos 36 y 139 de la Constitución.

En desarrollo de dicha competencia, se dictó la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de Ejercicio de Profesiones Tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales (en adelante, “Ley 18/1997”), que fue desarrollada por el Decreto 21/2004, de 3 de febrero, sobre el Reglamento del Registro de Profesiones Tituladas, los Colegios Profesionales y los Consejos Profesionales (en lo sucesivo, “Decreto 21/2004”).

El artículo 21 de la Ley 18/1997 creó el Registro de Profesiones Tituladas, y el Título I del Decreto 21/2004 regula la organización y funciones, y la publicidad de dicho registro.



Este documento es una representación del original disponible a través del localizador y la sede electrónica indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako lokalizatzailearen eta egoitza elektronikoaren bidez eskuragarri dagoena.

LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR: J0D0Z-T4RRM-9C6B
EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA: https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
SINATZAILE / FIRMANTE: OLATZ GARAMENDI LANDA | 2023/06/26 15:30:58

Bestalde, 21/2004 Dekretuaren 6.1 artikuluak hala dio: “Beharrezkoa bada, euskarri informatiko bat erabiliaz antolatuko du bere dokumentazioa Erregistroak, betiere dekretu honen eranskinean ezarritakoarekin bat etorriaz”.

Por su parte, el artículo 6.1 del Decreto 21/2004 dispone que “el Registro ordenará su documentación mediante el uso, en su caso, del correspondiente soporte informático, de conformidad con lo establecido en el Anexo del presente Decreto”.

21/2004 Dekretuaren eranskinak Tituludun Lanbideen Erregistroaren antolamendua arautzen du, eta lehenengo atalean hau xedatzen du: “Euskarri informatiko bat erabiliaz ordenatuko du bere dokumentazioa Erregistroak (…)”.

El Anexo del Decreto 21/2004 regula la ordenación del Registro de Profesiones Tituladas, y dispone en su apartado primero, que “el Registro ordenará su documentación, mediante el uso, en su caso, del correspondiente soporte informático (…)”.

21/2004 Dekretuaren 6.2 artikuluak xedatzen duenaren arabera, sailburu eskudunak “Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako aginduaren bitartez, (…) aldatu egin dezake dekretu honen eranskina, hain justu ere Erregistroa hobetu eta modernizatzeko edo teknologia berriei egokitzeko”.

El artículo 6.2 del Decreto 21/2004 establece que la consejera o consejero competente “(…) podrá, mediante orden publicada en el Boletín Oficial del País Vasco, modificar el Anexo del presente Decreto al objeto de la mejora y modernización del Registro o su adecuación a las nuevas tecnologías”.

Dekretu hori indarrean jarri zenetik igaro diren urteak kontuan hartuta, eta teknologiaren eta informatikaren arloetan izandako aurrerapenei erreparatuta –eta administrazio publikoa, batik bat, administrazio elektroniko bilakatu den heinean–, komeni da 21/2004 Dekretuaren eranskina aldatzea, Tituludun Lanbideen Erregistroa errealitate administratibo berrira egokitze aldera.

En consideración a los años transcurridos desde la entrada en vigor de dicho decreto, y en atención a los avances en el estado de la técnica en los ámbitos de la tecnología y la informática, y a la reconfiguración de la administración pública como una administración eminentemente electrónica, resulta procedente modificar el anexo del Decreto 21/2004 a fin de adecuar el Registro de Profesiones Tituladas a la nueva realidad administrativa.

Dagozkion prozesuak gauzatu dira Erregistroa erabat digitalizatzeko; horrenbestez, behar- eta egokitasun-printzipioak aintzat hartuta, bidezkoa da Tituludun Lanbideen Erregistroa prozedura telematiko berriekin bat egokituko dela ere iragartzea.

Se han acometido los oportunos procesos para la completa digitalización del Registro, por lo que –atendiendo a criterios de necesidad y oportunidad– procede, asimismo, anunciar la adaptación del Registro de Profesiones Tituladas conforme a los nuevos procedimientos telemáticos.

**II. Aplikazio-eremua.**

**II. Ámbito de aplicación.**

Onartu asmo den Aginduaren aplikazio-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa da.

El ámbito de aplicación de la Orden que se pretende aprobar es la Comunidad Autónoma del País Vasco.

**III. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagozkion araugintza-ahalmenekin bat etortzea.**

**III. Encaje en las facultades normativas que corresponden a la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.**

Autonomia Estatutuaren 10.22 artikuluak xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen esklusiboa du profesionalen elkargoen eta tituludun lanbideen arloan, hargatik eragotzi gabe Konstituzioaren 36. eta 139. artikuluetan xedatutakoa.

En virtud de lo previsto en el artículo 10.22 del Estatuto de Autonomía, la Comunidad Autónoma del País Vasco detenta competencia exclusiva en materia de colegios profesionales y ejercicio de profesiones tituladas, sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos 36 y 139 de la Constitución.

Eskumen hori baliatuta eman zen 18/1997 Legea, zeina 21/2004 Dekretuaren bidez garatu baitzen.

En desarrollo de dicha competencia, se dictó la Ley 18/1997, que fue desarrollada por el Decreto 21/2004.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren (aurrerantzean, “18/2020 Dekretua”) 7.1 artikuluaren n) atalak xedatutakoarekin bat etorriz, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko den urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuari (aurrerantzean, “8/2021 Dekretua”) erreparatuta, Sail honi dagozkio honako egiteko eta jardun-arlo hauek: elkarte, fundazio eta elkargo profesionalak, hargatik eragotzi gabe sailek, beren sektore-eremuan, horiekin dituzten harremanak.

Por otro lado, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 7.1, apartado n), del Decreto 18/2020, de 6 de septiembre, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos (en lo sucesivo, “Decreto 18/2020”), en relación con el Decreto 8/2021, de 19 de enero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno (en adelante, “Decreto 8/2021”), este Departamento es competente en materia de asociaciones, fundaciones y colegios profesionales, sin perjuicio de las relaciones que, respecto a dichas entidades, mantengan los departamentos en su ámbito sectorial.

**IV. Aintzat har daitezkeen beste aukera arautzaile batzuk.**

**IV. Alternativas regulatorias que pueden tomarse en consideración.**

Lehenengo azalpen-zatian aipatutako lege- eta erregelamendu-manuak kontuan hartuta, ez dago bestelako aukera arautzailerik azaldutako araugintza-beharrari konponbide eraginkorra emateko.

En atención a los preceptos legales y reglamentarios citados en el expositivo primero, no existe solución regulatoria alternativa para dar una respuesta eficaz a la necesidad normativa planteada.

Adierazi den bezala, 21/2004 Dekretuaren 6.2 artikuluak sailburu eskudunari –hots, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua– ematen dio dekretu horren eranskina aldatzeko ahalmena, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako agindu bidez, erregistroa hobetu eta modernizatzeko edo teknologia berrietara egokitzeko.

Como ya se ha indicado, el artículo 6.2 del Decreto 21/2004 atribuye a la consejera competente –a saber, la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno– la facultad de modificar, mediante orden publicada en el Boletín Oficial del País Vasco, el Anexo de dicho Decreto, con objeto de mejorar y modernizar el Registro o adecuarlo a las nuevas tecnologías.

**V. Prozedura**

**V. Procedimiento**

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak (aurrerantzean, “6/2022 Legea”) ezartzen du zer prozedura bete behar den onartu asmo den agindua egiteko.

Es la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General (en adelante, “Ley 6/2022”) la que determina el procedimiento a seguir para la elaboración de la orden que se pretenden aprobar.

Lege horren 12.1 artikuluak hau adierazten du: “Xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da”. Bestalde, 13. artikuluak prozedura hasteko aginduak jaso beharreko edukia eta baldintzak zehazten ditu.

El artículo 12.1 de la citada Ley, señala que “el procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general se iniciará por orden del consejero o consejera titular del departamento competente por razón de la materia sobre la que versen”. Por su parte, el artículo 13 regula el contenido y requisitos de la orden de inicio.

Aipatutako aurrekariak kontuan hartuta, eta Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legearen (“7/1981 Legea”) 26.4 artikuluan, 6/2022 Legearen 12.1 eta 13. artikuluetan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen (“39/2015 Legea”) 128-133. artikuluetan ezarritakoaren arabera, honako hau

De acuerdo con los antecedentes expuestos y en virtud de lo establecido en el artículo 26.4 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno (“Ley 7/1981”), en los artículos 12.1 y 13 de la Ley 6/2022, y en los artículos 128 a 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas (“Ley 39/2025”),

**EBATZI DUT:**

**RESUELVO:**

**Lehenengo artikulua**.- Hasiera ematea Profesionalen Elkargoei eta Kontseiluei eta Tituludun Lanbideen Erregistroaren araudiari buruzko otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuaren eranskina aldatzeko eta Tituludun Lanbideen Erregistroa prozedura telematikoen arabera egokitzeko den agindu-proiektua egiteko prozedurari, kontuan hartuta Agindu honetan eta 6/2022 Legean ezarritakoa, eta, zehazki, agindu honen I. eranskinean jasotako jarraibideak.

**Artículo primero**.- Ordenar el inicio del procedimiento para la elaboración del proyecto de Orden por la que se modifica el anexo del Decreto 21/2004, de 3 de febrero, sobre el Reglamento de Profesiones Tituladas, los Colegios Profesionales y los Consejos Profesionales y se adapta el Registro de Profesiones Tituladas conforme a procedimientos telemáticos, de acuerdo con lo establecido en la presente Orden y en la Ley 6/2022, y, en concreto, en las directrices contenidas en el Anexo I a esta Orden.

**Bigarren artikulua**.- Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza izendatzea lehen aipatutako prozedura izapidetzeaz arduratuko den organo gisa, zuzendaritza horri esleitutako eskumenak aintzat hartuta.

**Artículo segundo**.- Designar a la Dirección de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos como órgano encargado de la tramitación del procedimiento antes citado, de acuerdo con las competencias atribuidas a esta.

**LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA**

Prozedura hasteko agindua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratuko da, 6/2022 Legearen 13.2 artikuluak ezarritakoarekin bat. Behin agindua argitaratuta, sail bakoitzak automatikoki izango du horren berri, ekimenaren egokitasunari buruzko oharrak egin ahal ditzan, hala nahi izanez gero.

**DISPOSICIÓN ADICIONAL PRIMERA**

La orden de inicio será objeto de publicación en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de conformidad con lo establecido en el artículo 13.2 de la Ley 6/2022. Dicha publicación supondrá la comunicación automática al conjunto de los departamentos, a fin de que, en su caso, puedan formular observaciones respecto al acierto y oportunidad de la iniciativa.

**BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA**

Agindu hau Legesarea izeneko lankidetza-gunean jakinaraziko da, Gobernu Kontseiluak 2010eko abenduaren 28an xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartzen dituen Erabakian xedatutakoari jarraikiz.

**DISPOSICIÓN ADICIONAL SEGUNDA**

La presente orden se dará a conocer en el espacio colaborativo Legesarea, de conformidad con lo dispuesto en el Acuerdo de Consejo de Gobierno de 28 de diciembre de 2010, por el que se aprueban las instrucciones de tramitación de disposiciones de carácter general.

**HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA**

**DISPOSICIÓN ADICIONAL TERCERA**

Agindua idazteko, kontuan hartu beharko dira Gobernu Kontseiluak 1993ko martxoaren 23an hartutako Erabakiaren bidez onartutako gidalerroak, zeinak Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako sailburuaren 1993ko apirilaren 6ko Agindu bidez argitaratu baitziren.

Sinaduraren datan

Para la redacción de la orden se deberán tener en cuenta las directrices aprobadas para su elaboración por Acuerdo del Consejo de Gobierno de 23 de marzo de 1993, cuya publicación se dispuso por Orden de 6 de abril de 1993 del Consejero de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico.

A la fecha de la firma

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua
La Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno

OLATZ GARAMENDI LANDA

(Elektronikoki sinatua / Firmada electrónicamente)

## I. ERANSKINA

Hasteko agintzen den agindu-proiektua egiteko, honako jarraibide hauek hartuko dira kontuan:

**1.- Xedea eta helburua.**

Agindu-proiektu honen xedea da 21/2004 Dekretuaren eranskina aldatzea eta Tituludun Lanbideen Erregistroa prozedura telematikoen arabera egokitzea. Horrela, araugintza-proposamen honen bidez Tituludun Lanbideen Erregistroa telematikoki berregituratu asmo da, haren funtzionamendua teknologia berriek eskaintzen dituzten aukeretara eta administrazio elektronikoaren paradigmara egokituz, administrazio eraginkor, efiziente eta moderno gisa.

Modu horretan, 18/1997 Legearen 21. artikuluan, eta 21/2004 Dekretuaren 6.2 artikuluan xedatutakoa beteko da.

**2.- Arauaren bideragarritasun juridikoa eta materiala.**

Agindu-proiektu honen bideragarritasun juridikoak Autonomia Estatutuaren 10.22 artikuluak Euskal Autonomia Erkidegoari ematen dizkion eskumenetan du oinarri. Eskumen horiek baliatuta eman zen 18/1997 Legea, zeina 21/2004 Dekretuaren bidez garatu baitzen.

Bestalde, oinarri du 18/2020 Dekretuaren 7.1 artikuluaren n) atalak, 8/2021 Dekretuarekin lotuta, bai eta 7/1981 Legearen 26.4 artikuluak ezarritakoa ere.

Bere aldetik, onartu asmo den aginduaren bideragarritasun materiala ondorioztatzen da, eranskin honen 1. atalean azaldutako xede

## ANEXO I

En la elaboración del proyecto de la orden cuyo inicio se ordena se tomarán en consideración las siguientes premisas:

**1.- Objeto y finalidad.**

El objeto y finalidad de este proyecto de orden es modificar el anexo del Decreto 21/2004 y adaptar el Registro de Profesiones Tituladas conforme a procedimientos telemáticos. Esta propuesta normativa pretende así reestructurar telemáticamente el Registro de Profesiones Tituladas, adaptando su funcionamiento a las posibilidades que ofrecen las nuevas tecnologías y al paradigma de la administración electrónica, como una administración eficaz, eficiente y moderna.

De esta forma, se dará cumplimiento a lo dispuesto en el artículo 21 de la Ley 18/1997, y el artículo 6.2 del Decreto 21/2004.

**2.- Viabilidad jurídica y material de la norma.**

La viabilidad jurídica del proyecto de orden se fundamenta en las competencias atribuidas a la Comunidad Autónoma del País Vasco por el artículo 10.22 del Estatuto de Autonomía, en cuyo desarrollo se dictó la Ley 18/1997, que fue desarrollada por el Decreto 21/2004.

Por otro lado, tiene fundamento en lo dispuesto en el artículo 7.1, apartado n), del Decreto 18/2020, en relación con el Decreto 8/2021, así como en el artículo 26.4 de la Ley 7/1981.

Por su parte, la viabilidad material de la orden que se pretende aprobar se desprende del hecho de que ésta supondrá dar una

eta helburuari baliozko erantzun juridikoa emango zaion heinean.

**3.- Ordenamendu juridikoan izango duen eragina.**

Onartu asmo den Aginduaren bidez Profesionalen Elkargoei eta Kontseiluei eta Tituludun Lanbideen Erregistroaren araudiari buruzko otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuaren eranskina aldatuko da.

**4.- Inpaktuari, emaitzei edo bestelakoei buruzko ebaluazioak.**

Agindu honi dosier bat erantsi zaio, II. Eranskin gisa, zeinak proiektatutako arauari edo eragindako arauei buruz egindako ebaluazioak –inpaktuari, emaitzei edo bestelakoei buruzkoak– biltzen baititu.

**5.- Aurrekontu-gorabeherak.**

Memoria ekonomiko bat egingo da, arautzen diren alderdiek dagokion administrazio publikoaren aurrekontuetan izan dezaketen eragin ekonomikoa zenbatesteko.

Aginduaren ezarpenak ez du inolako eragin ekonomikorik izango. Hori horrela, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak ez du horretarako ekonomia-baliabiderik erabili behar, ez eta aurrekontu-kontsignazio gehigarririk ezarri ere, indarreko aurrekontuetan.

**6.- Egin beharreko izapide eta txostenak.**

Agindua onartzeko, proiektuaren administrazio-izapidearekin jarraitu beharko da, 6/2022 Legean eta 39/2015 Legearen 128-133 artikuluetan aurreikusitako prozeduraren arabera, eta Tramitagunerako

respuesta jurídica válida al objeto y finalidad expuestos en el apartado 1.º de este Anexo.

**3.- Repercusión en el ordenamiento jurídico.**

La orden que se prevé aprobar conllevará la modificación del anexo del Decreto 21/2004, de 3 de febrero, sobre el Reglamento de Profesiones Tituladas, los Colegios Profesionales y los Consejos Profesionales.

**4.- Evaluaciones de impacto, de resultado o de otro tipo.**

Se acompaña a la presente orden un dosier adjunto relativo a las evaluaciones de impacto, de resultado o de otro tipo de las que hayan sido objeto de la norma proyectada o las disposiciones afectadas por ella. Se acompaña como Anexo II.

**5.- Incidencia presupuestaria.**

Se elaborará una memoria económica a los efectos de estimar la repercusión económica que los aspectos que se regulen puedan generar en los presupuestos de la administración pública concernida.

La aplicación de la orden no tendrá ninguna incidencia económica. De esta forma no se precisa destinar ningún recurso económico ni establecer consignación presupuestaria adicional por el Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno a tal efecto en los presupuestos vigentes.

**6.- Trámites e informes procedentes.**

Para aprobar la orden es preciso seguir la tramitación administrativa del proyecto, conforme al procedimiento previsto en la Ley 6/2022 y en los artículos 128 a 133 de la Ley 39/2015, y de acuerdo con lo dispuesto en el

onartutako izapidetze-ereduan xedatutakoaren arabera.

*Hasiera-fasea:*

- 6/2022 Legearen 11 artikuluak eta 39/2015 Legearen 133.1 artikuluak xedatutakoarekin bat, aldez aurretiko kontsulta publikoa bideratu zen, arauaren testua idatzi baino lehen. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan iragarkia argitaratu zen, xedapenaren hartzaile izan daitezkeen pertsona guztiek aukera izan zezaten euren iritzia emateko.

- Hasteko agindu hau emango da, eta ezagutza partekatuko Legesarea lankidetza-gunean argitaratuko da, Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakiak xedatzen duena betez

Halaber, Legegunea publizitate aktiboaren atarian argitaratuko da, gobernu onaren, gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen arloan indarrean dagoen araudia betez.

Halakorik badago, kontuan hartuko dira hasteko agindua iragarki-taulan, Legesarean eta Legegunean argitaratzearen ondoriozko ekarpenak eta oharrak, xedapen orokorrean arautu asmo denaren egokitasuna eta legezkotasuna bermatze aldera.

- Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak arau-eraginaren azterketari buruzko memoria egingo du, zeinak 6/2022 Legearen 15.3 artikuluan aipatzen diren alderdiak jasoko baititu.

- Era berean, memoria ekonomikoa egingo da.

modelo de tramitación aprobado para Tramitagune.

*Fase de iniciación:*

- En cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 11 de la Ley 6/2022 y 133.1 de la Ley 39/2015, se ha sustanciado consulta pública previa a la elaboración del texto de la norma, a través de anuncio en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a fin de que todas las personas potenciales destinatarias de la disposición tuvieran la posibilidad de emitir su opinión.

- Se dictará la presente orden de inicio y se publicará en el espacio colaborativo de conocimiento compartido Legesarea, en cumplimiento del Acuerdo de Consejo de Gobierno de 28 de diciembre de 2010.

Asimismo, se publicará en el portal de publicidad activa, Legegunea, en cumplimiento de la normativa vigente en materia de buen gobierno, transparencia y participación ciudadana.

En caso de haberlas, se tendrán en cuenta las aportaciones y observaciones derivadas de la publicación de la orden de inicio en el tablón de anuncios, en Legesarea y en Legegunea, a fin de garantizar el acierto y legalidad de lo que se pretende regular en la disposición de carácter general.

- La Dirección de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos elaborará una memoria del análisis de impacto normativo, que contendrá los extremos a los que hace referencia el artículo 15.3 de la Ley 6/2022.

- Asimismo, se emitirá memoria económica.

- Generoaren ikuspegitik garrantzirik ez duela justifikatzeko txostena egingo da. Genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzko jarraibideetan xedatutakoaren arabera (Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaren bidez onartu ziren, zeina 2012ko irailaren 25eko 187. EHAAn argitaratu baitzen, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpen bidez).

- Segidan, arestian aipatu denaren arabera, 6/2022 Legean adierazitako jarraibideak kontuan hartuta, agindu-proiektuaren testua idatziko da. Elebitan idatziko da, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legearen (aurrerantzean, “10/1982 Legea”) 8.1 artikuluak eta 6/2022 Legearen 14.5 artikuluak xedatutakoari jarraikiz.

- Egokitzat jo da txosten juridiko espezifikoa eskatzea Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Aholkularitza Juridikoari, 6/2022 Legearen 15.4 artikuluan aurreikusitako baldintzetan, eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 4. artikuluaren a) atalean xedatutakoan oinarrituta.

*Aldez aurreko onarpena:*

- Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu-proiektua aldez aurretik onartzeko agindua emango da.

- Aldez aurreko onarpen-agindu hori, arau-proiektuaren testuarekin batera, Legesarean

- Se emitirá el informe justificativo de la ausencia de relevancia desde el punto de vista del género, de acuerdo con lo dispuesto en las Directrices sobre la realización de la evaluación previa del impacto en función del género y la incorporación de medidas para eliminar las desigualdades y promover la igualdad de mujeres y hombres, aprobadas por Acuerdo de Consejo de Gobierno el 21 de agosto de 2012 (publicado en el BOPV n.º 187 de 25 de septiembre de 2012, por Resolución 40/2012, de 21 de agosto, de la Directora de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento).

- A continuación, se redactará, de conformidad con lo previamente indicado, un texto del proyecto de orden que siga las pautas indicadas en la Ley 6/2022. Esta redacción será bilingüe, de conformidad con lo previsto en el artículo 8.1 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del uso del euskera (en adelante, “Ley 10/1982”) y el artículo 14.5 de la Ley 6/2022.

- Se ha considerado procedente solicitar la emisión de un informe jurídico específico a la Asesoría Jurídica del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno, en los términos previstos en el artículo 15.4 de la Ley 6/2022, y con base en lo dispuesto en el artículo 4, apartado a), de la Ley 7/2016, de 2 de junio, de Ordenación del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco.

*Aprobación previa:*

- Se dictará la orden de aprobación previa del proyecto de orden de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno.

- Dicha orden de aprobación previa, junto con el texto del proyecto de norma, será publicada en Legesarea, de conformidad con lo

argitaratuko da, Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakian xedatutakoa betez.

*Izapidetzea:*

- Agindu-proiektuak honako txosten eta izapide hauek bete beharko ditu:

- Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak xedatutakoaren arabera.

- 6/2022 Legearen 14.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, proiektuaren testua idatzi ondoren, generoaren araberako eraginari buruzko txosten bat egingo da. Txostena Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen esku jarriko da, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina (1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua) behar bezala aplikatzen dela egiazta dezan, eta, hala badagokio, hobetzeko proposamenak egin ditzan.

  Txosten horren beharra testu bategin horren 19. artikuluan ezarritakoarekin ere bat dator, eta, hura egiteko, Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaren bidez onartutako genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari eta

dispuesto en el Acuerdo de Consejo de Gobierno de 28 de diciembre de 2010.

*Instrucción:*

- El proyecto de orden se someterá a los siguientes informes y trámites:

- Informe de la Dirección de Normalización Lingüística de las Administraciones Públicas del Departamento de Cultura y Política Lingüística, en virtud de lo dispuesto en el Decreto 233/2012, de 6 de noviembre, por el que se establece el régimen de inclusión de la perspectiva de normalización del uso del euskera en el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general.

- Según lo establecido en el artículo 14.4 la Ley 6/2022, una vez redactado el texto del proyecto, se elaborará un informe de impacto en función del género, que se pondrá a disposición de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, a efectos de que verifique la correcta aplicación del texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres (aprobado por Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo), y, en su caso, para realizar propuestas de mejora.

  La necesidad de este informe responde igualmente a lo establecido en el artículo 19 de dicho texto refundido, y en su elaboración se seguirán las Directrices sobre la realización de la evaluación previa del impacto en función del género y la

gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzko jarraibideak izango dira kontuan.

incorporación de medidas para eliminar desigualdades y promover la igualdad de mujeres y hombres, aprobadas por Acuerdo del Consejo de Gobierno de 21 de agosto de 2012.

- Enpresaren gaineko eraginari buruzko txostena, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluak xedatutakoarekin bat.

- Informe de impacto en la empresa, de conformidad con lo establecido en el artículo 6 de la Ley 16/2012, de 28 de mayo, de Apoyo a las Personas Emprendedoras y a la Pequeña Empresa del País Vasco.

- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzaren txostena, proiektatutako araudiaren xedeak zerikusia baitu zuzendaritza horren eskumen-eremuarekin. Hori guztia 8/2021 Dekretuaren 12.1 artikuluan xedatutakoari erreparatuta, 5. artikuluaren f) atalarekin lotuta.

- Informe de la Dirección de Atención a la Ciudadanía y Servicios Digitales de la Consejería de Gobernanza Pública y Autogobierno, en tanto en cuanto el objeto de la regulación proyectada guarda relación con el ámbito competencial de dicha Dirección. Ello en atención a lo dispuesto en el artículo 12.1 del Decreto 8/2021, en relación con su artículo 5, apartado f).

- Informazioa jendaurrean jartzeko izapidea bideratuko da, hilabeteko epean, agindu-proiektuaren testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratuz, herritarrek eta erakundeek agindu-proiektuaren gaineko iritzia eman eta ekarpenak egin ditzaten. Hori guztia 6/2022 Legearen 17. artikuluak eta 39/2015 Legearen 133.2 artikuluak xedatutakoaren arabera.

- Se sustanciará el trámite de información pública a la ciudadanía por el plazo de un mes, mediante la publicación del texto del proyecto de orden en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a fin de recabar la opinión y aportaciones de la ciudadanía y entidades sobre el proyecto de orden. Ello de conformidad con lo previsto en los artículos 17 de la Ley 6/2022 y 133.2 de la Ley 39/2015.

- Ez da beharrezkotzat jotzen beste administrazio publiko batzuei prozeduran parte hartzeko aukera ematea, 6/2022 Legearen 18. artikuluaren arabera, proiektatutako araudiaren xedeak ez baitio eragiten ez euren eskumen-eremuari, ez haien jarduketa-eremuari.

- No se estima necesario dar participación en el procedimiento a otras administraciones públicas conforme al artículo 18 de la Ley 6/2022, en tanto en cuanto el objeto de la regulación proyectada no afecta al ámbito de competencial ni al ámbito de actuación de éstas.

- Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiari legezkotasunari buruzko txostena egitea eskatuko zaio, 6/2022 Legearen 22. artikuluak xedatutakoarekin bat.

- Se solicitará informe preceptivo de legalidad al Servicio Jurídico Central del Gobierno Vasco, de conformidad con lo preceptuado en el artículo 22 de la Ley 6/2022.

- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren halabeharrezko txostena emango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren 25. artikuluak xedatutakoaren arabera (Legearen testu bategina urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen).

- Se recabará el informe preceptivo de la Oficina de Control Económico, según lo establecido en el artículo 25 del texto refundido de la Ley de Control Económico y Contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi, aprobado por Decreto Legislativo 2/2017, de 19 de octubre.

- Adierazitakoaz gain, ez dira beharrezkoak izango beste organo batzuen txostenak, aginduaren izaera eta edukia mugatuak direlako.

- Aparte de lo indicado, no serán necesarios informes de otros órganos, a la vista de lo limitado de la naturaleza y contenido de la Orden.

*Onarpen-fasea*:

*Fase de aprobación:*

- Prozedura osoaren gaineko memoria labur bat erantsiko zaio espedienteari. Memoria horretan berariaz jasoko dira 6/2022 Legearen 24. artikuluaren 2. eta 3. atalek aipatutako alderdiak.

- Se unirá al expediente una memoria sucinta de todo el procedimiento, que contendrá expresamente los aspectos a los que alude el artículo 24, apartados 2 y 3, de la Ley 6/2022.

- Aginduaren testua behin betiko idatziko da.

- Se procederá a la definitiva redacción del texto de la orden.

**7.- Europar Batasunaren aurreko izapideak.**

**7.- Trámites ante la Unión Europea.**

Ez da beharrezkoa izango Europar Batasunaren aurrean agindu-proiektu honen gaineko izapiderik egitea, arauaren aplikazio-eremua eta xedea eta helburua aintzat hartuta.

No será necesario realizar ningún trámite ante la Unión Europea respecto a este proyecto de orden, en consideración a su ámbito de aplicación y el objeto y finalidad de la norma.

**8.- Izapidetze elektronikoa.**

**8.- Tramitación electrónica.**

Espedientea elektronikoki izapidetuko da PLATEA-Tramitagune Administrazio Elektronikoaren Plataforma Bateratuan,

El expediente será tramitado de forma electrónica en la Plataforma Común de la Administración Electrónica PLATEA-Tramitagune, en aplicación a lo dispuesto en

Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakian xedatutakoari jarraikiz.

el Acuerdo de Consejo de Gobierno de 28 de diciembre de 2010.

**9.- Zabalkundea eta publizitate aktiboa.**

Agindu-proiektua, espedientea osatzen duten memoriak, irizpenak eta txostenak, eta, bereziki, arau-eraginaren azterketari buruzko memoria Legegunea publizitate aktiboaren atarian argitaratuko dira.

Hori guztia, pertsonek administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideei eta, hain zuzen informazio publikora, artxiboetara eta erregistroetara irispidea izateko eskubideari erreparatuta; 39/2015 Legearen 13 artikuluaren d) atalak eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 7 artikuluaren b), d) eta e) atalek ezarritakoa aintzat hartuta.

**9.- Difusión y publicidad activa.**

El proyecto de la orden, las memorias, dictámenes e informes que conformen el expediente y, en particular, la memoria del análisis de impacto normativo, serán objeto de publicación en el portal de publicidad activa Legegunea.

Ello, de conformidad con lo establecido en relación con los derechos de las personas en sus relaciones con las Administraciones Públicas para el acceso a la información pública, archivos y registros, atendiendo a lo previsto en el artículo 13, apartado d), de la Ley 39/2015, y al artículo 7, apartados b), d) y e), de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.

**10.- Elebitan idazteko modua.**

Agindu-proiektua bi hizkuntza ofizialetan idatziko da, euskaraz eta gaztelaniaz. Era berean, prozeduran zehar, prestaketan parte hartzen dutenen eta hartzaileen hizkuntza-eskubideak bermatuko dira.

10/1982 Legearen 8.1 artikuluan eta 6/2022 Legearen 5. artikuluan xedatutakoa betetzeko erabiliko den sistema honako hau da: idazketa bi hizkuntza ofizialetan egingo da, aldi berean. Horrela, hizkuntzen berdintasuna bermatuko da araugintza-prozesu osoan zehar.

Era berean, beteko da Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Erabakian xedatutakoa, zeinaren bidez lege, legegintza-

**10.- Método para la redacción bilingüe.**

El proyecto de orden será redactado en las dos lenguas oficiales, el euskera y el castellano. Del mismo modo, a lo largo del procedimiento, se garantizarán los derechos lingüísticos de quienes participan en la elaboración y sus destinatarios.

El sistema que se utilizará para el cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 8.1 de la Ley 10/1982 y el artículo 5 de la Ley 6/2022, será la redacción simultánea y paralela en las dos lenguas oficiales. Se garantizará así la igualdad lingüística a lo largo de todo el proceso de elaboración normativa.

Se estará, igualmente, a lo dispuesto en el Acuerdo de Consejo de Gobierno de 14 de mayo de 2013 por el que se aprueban las

dekretu, dekretu edo agindu forma hartzen duten xedapen orokorrak elebitan egiteko neurriak onartzen baitira.

medidas para la elaboración bilingüe de las Disposiciones de Carácter General que adopten la forma de Ley, Decreto legislativo, Decreto u Orden.

Halaber, aginduaren azken testuaren euskarako bertsioa gaztelaniazkoari dagokionez (eta alderantziz berdin) zehatza eta baliokidea dela bermatzeko, Eusko Jaurlaritzako Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak (IZO) gainbegiratuko du proiektuaren idazketa. Hori guztia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta erakunde autonomoetako itzulpen-zerbitzuak zentralizatzeko agindua ematen duen apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuak ezarritakoarekin bat.

Asimismo, y a fin de garantizar la exactitud y equivalencia de la versión en euskera respecto de la versión en castellano, y viceversa, del texto final de la Orden, la redacción del proyecto será supervisada por el Servicio Oficial de Traductores del Gobierno Vasco Servicio Oficial de Traductores (IZO). Ello de conformidad con lo establecido en el Decreto 48/2012, de 3 de abril, por el que se determina la centralización de los servicios transversales de traducción de la Administración General de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos.

## II. ERANSKINA

**Proiektatutako arauaren edo eragindako arauen gainean egindako ebaluazioak –inpaktuari, emaitzei edo bestelakoei buruzkoak– biltzen dituen dosierra.**

6/2022 Legearen 13.1. artikuluaren c) atalak xedatutakoaren arabera, xedapen orokorrak egiteko prozedura hasteko aginduak dosier bat jasoko du, zeinak bilduko baititu proiektatutako arauaren edo eragindako arauei buruz egindako ebaluazioak –inpaktuari, emaitzei edo bestelakoei buruzkoak–. Xedapen berak ezartzen du egin asmo den arauak genero-ikuspegitik izan dezakeen garrantziaren lehen estimazio bat jasoko dela.

Egin asmo den arau-xedapenaren kasuan, honako xedea izango duen agindua izango da: Profesionalen Elkargoei eta Kontseiluei eta Tituludun Lanbideen Erregistroaren araudiari buruzko otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuaren eranskina aldatzea eta Tituludun Lanbideen Erregistroa prozedura telematikoen arabera egokitzea.

18/1997 Legearen 21. artikuluak Tituludun Lanbideen Erregistroa sortu zuen, eta 21/2004 Dekretuaren I. Tituluak erregistroaren funtzioak eta antolamendua, eta publikotasuna arautzen ditu (dekretu hori aipatutako legea garatzeko eman zen, legaren azken xedapen bakarrean jasotako legezko gaikuntza baliatuta).

21/2004 Dekretuaren eranskinak Tituludun Lanbideen Erregistrora sartzen den dokumentazioaren antolamendua arautzen du, zeina euskarri informatiko bat erabiliz egingo baita.

## ANEXO II

**Dosier relativo a las evaluaciones de impacto, de resultado o de otro tipo de las que hayan sido objeto de la norma proyectada o de las disposiciones afectadas por ella.**

El artículo 13.1, apartado c), de la Ley 6/2022 dispone que la orden de inicio del procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general, contendrá un dosier adjunto relativo a las evaluaciones de impacto, de resultado o de otro tipo de las que hayan sido objeto la norma proyectada o las disposiciones afectadas por ella. El mismo precepto establece que se incluirá una primera estimación motivada sobre la relevancia desde el punto de vista del género de la propuesta normativa.

En el caso de la disposición normativa proyectada, se trata de una orden que tendrá por objeto modificar el anexo del Decreto 21/2004, de 3 de febrero, sobre el Reglamento de Profesiones Tituladas, los Colegios Profesionales y los Consejos Profesionales, y adaptar el Registro de Profesiones Tituladas conforme a procedimientos telemáticos.

El artículo 21 de la Ley 18/1997 creó el Registro de Profesiones Tituladas, y el Título I del Decreto 21/2004 (dictado en desarrollo de la citada ley haciendo uso de la habilitación legal contenida en la disposición final única de ésta) regula la organización y funciones, y la publicidad de dicho registro.

El anexo del Decreto 21/2004 reglamenta la ordenación de la documentación que tiene acceso al Registro de Profesiones Tituladas, que se realizará mediante el uso del correspondiente soporte informático.

21/2004 Dekretua indarrean sartu zenetik, Dekretuaren eranskinaren testuak ez du aldaketarik izan; haatik, agerikoa da teknikaren egoerak nabarmen egin duela aurrera, eta, hortaz, beharrezkoa da Tituludun Lanbideen Erregistroaren antolamendua egokitzea. dira Erregistroa erabat digitalizatzeko burututako prozesuak aintzat hartuta, gauza bera ondoriozta daiteke. Hori horrela, aldaketa beharrezko eta egokitzat jo behar da, administrazio publikoaren paradigma berriarekin bat baitator: administrazio elektronikoa, eraginkorra, efizientea eta modernoa.

Desde la entrada en vigor del Decreto 21/2004, el texto del anexo del Decreto permanece inalterado, cuando es patente que el estado de la técnica ha avanzado de forma notable, por lo que se hace necesario adaptar la organización y la ordenación del Registro de Profesiones Tituladas. Los trabajos que se han llevado a cabo para la completa digitalización del Registro apuntan en el mismo sentido. Se trata así de una modificación necesaria y oportuna que va en sintonía con el nuevo paradigma de administración pública: una administración electrónica, eficaz, eficiente y moderna.

Modu horretan, Dekretuaren eranskina aldatzeak –Erregistroaren antolamendua teknikaren arloan izandako aurrerapenetara egokitze aldera–prozedura telematikoetara egokitzeko eragin positiboa izango du interesdunengan. Izan ere, erregistroaren berregituraketak erraztu egingo du bertan jasotako informazioa antolatzea, interesdunek erregistrora sarbidea izatea, eta bertan jasotako informazioaren ziurtagiriak egitea ahalbidetuko du, prozedura telematikoak baliatuta.

De tal forma, la modificación del anexo del Decreto a fin de adecuar la organización y ordenación del Registro al estado de la técnica actual, adaptándolo a procedimientos telemáticos, tendrá un impacto positivo en los interesados. Y es que la reestructuración registral facilitará la ordenación de la información en él contenida, el acceso al Registro por parte de los interesados, y posibilitará emitir certificaciones de la información en él alojada, haciendo uso de procedimientos telemáticos.

Azkenik, genero-ikuspegitik izan dezakeen garrantziaren lehen estimazioa den bezainbatean, aurreikusten da proiektatutako arauak ez duela genero-ikuspegiaren araberako garrantzirik izango, arau-xedapenak administrazio-erregistro bat berregituratzea baitu xede.

Finalmente, por lo que respecta a la primera estimación motivada sobre la relevancia desde el punto de vista del género, se prevé la ausencia de relevancia desde el punto de vista del género de la norma proyectada, dado que se trata de una disposición normativa orientada exclusivamente a reestructurar un registro administrativo.